

## HELBURUA:

Birlandatu den habitat bateko funtsezko elementu gisa lurzoruak duen balio bereziari buruz ikertzea eta ura eta klimaren (karbono-bahiketa) erregulazioan lurraren garrantzia kuantifikatzea.

## METODOLOGIA:

Azterketa-eremuak iraupen luzeko hezkuntza proiektu baten bidez 2012an basoberritutako ([Oinez Basoa](#)), 60.700 m<sup>2</sup>-ko azalera du. Behin azterketa-eremuaren ezaugarriak aztertuta, hala nola klima, geomorfologia eta litologia, 2023an, hainbat landa-material erabilia, eremu horretako laginak jaso ziren.

Landa eremuan zuhaitz-biomasa, lurzorua eta biltegiratutako karbono-kantitatea aztertzeko hiru jarduera burutu ziren:

1. Barrena-zulotik abiatuta lur-laginketa eta aluminiozko eraztunen bidezko erauzketa.
2. Hipsometro eta kalibre bidezko zuhaitz-neurketa.
3. Jarduera biologikoari buruzko informazioa lortzeko, te-poltsen eta rooibos poltsen lurperaketa.

Horri guztiari esker, lurzoruaren hainbat alderdi eta funtziori lotutako zenbait parametro aztertu dira: parametro fisikoak (dentsitatea, porositatea eta ur-atxikipena) C zikloari lotutako beste batzuk eta jarduera biologikoari lotutako beste batzuk (C organiko totala, C mikroorganismoen biomasan eta mineralizazio-tasak te-poltsetan).

## ONDORIOAK:

Ondoriozta daiteke lurzoru faktorea erabakigarria izan dela baso berriaren garapenean. Gainera, bertan karbono kantitate handia biltzen ari da, batez ere zuhaitzetako egurrean. Xurgatze hau desberdina da zuhaitz espeziearen arabera; dena den, lurlean metatutakoan ez da desberdintasunik ikusi azterketa gauzatutako sakontasunean (30cm).

Bestalde, basoberritze-proiektu bati ekiteko orduan, lurzoru-mota kontuan hartzea garrantzitsua dela eta ekosistemak nola funtzionatzen duen ulertzeko baliagarriak diren lur-parametroak daudela ikusi da, adibidez, ur-atxikipena, eta ahalmen hori handitzea ez dela erraza.

### **Ikerketa burutu duten 2. Batxilergoko ikasleak:**

Nahia Acedo, Mainer Alduncin, Irantzu Barberena, Lorea Carasatorre, Sarah Francisco, Nahia Luis, María Oreja, Maialen Aincioa, Miren Alonso, Izaskun Eneriz, Aritz Errazkin, Leire Forcada, Jon Gonzalo, Imanol Nuin e Irati Oteiza, Lorea Busto (representante del grupo).

**Irakasle aholkularia:** NAGORE AIZPURUA, (Unai Gallastegui)

Paz de Ziganda Ikastola

ERMITALDEA 1, VILLAVA (NAVARRA) ESPAÑA, TFN: 948136614

EMAIL: pziganda@ikastola.eus